



Tratamendua:

Hona hemen hartan egindakoak:

- Bildu zaion zikinkeria guztia kendu zaio: hautsa, amaraunak, pintura, igeltsua, zementoa...
- Polikromia aztertu da, azaleko pintura geruzak kendu zaizkio, bai eta apaingarrien zehetasunak ezkutatzen zituzten berniz oxidatuak ere.
- Zona higituak onbideratu eta egonkortu egin dira.
- Azala babestu.
- Frisoan bete egin dira hutsuneak, idazkunak errazago irakurtzea izan dadin.
- Sendotu egin da metalezko egitura: galdutako finkagailuak ordeztu, askatutako edo hondatutako piezak lotu, loka zegoen ate orria jaso.



Tratamiento:

La intervención realizada ha consistido en:

- Limpieza de la suciedad acumulada: polvo, telarañas, pintura, yeso, cemento...
- Estudio de las policromías existentes y eliminación de repintes modernos y barnices oxidados que ocultaban los detalles de la decoración.
- Saneado y estabilización de las zonas corroídas.
- Protección de la superficie.
- Reintegración de lagunas en la zona del friso para facilitar la lectura de las inscripciones.
- Refuerzo de la estructura metálica: reposición de elementos de anclaje perdidos, sujeción de piezas sueltas o deformadas, levantamiento de la hoja de la puerta descolgada.

Tratatzean, estaldura geruzen zenbait mikrolagin hartu dira. Haien azterketaren helburua zen mendeetan zehar elkarren gainean finkatu diren pintura geruzen eraketa zehaztea, erabilitako pigmentu eta aglutinatzaileak identifikatzea eta aplikazio teknikak antzematea.

Durante el tratamiento, se tomaron varias micromuestras de los recubrimientos. Su análisis estaba dirigido a determinar la composición de las distintas capas pictóricas superpuestas a lo largo de los siglos, identificar los pigmentos y aglutinantes empleados y reconocer las técnicas de aplicación.

1 laginean, olio lehortzailearen (1) gainean, gris kolore gorabeheratsuko lehen polikromia bat (2) ageri da, eta ondoren urdin koloreko (3) geruza bat, berun-zuriz, karbono-beltzez eta anilez osatua. Haien gainean, birpintura berriak. Lanetan zehar, geruza urdina ikusgai uztea erabaki da.

En la **muestra 1** aparece una primera policromía de color gris irregular (2) sobre una preparación de aceite secante (1). A continuación se observa una capa de color azul (3) compuesta por albayalde, negro carbón e índigo. Sobre ellas, los repintes modernos. Durante los trabajos, se decide dejar a la vista la capa azul.

2 laginean burdin hesiko zenbait ingurutan ageri den mintz urrekara (2) ikusten da. Olio urreztatzailea zuen aplikatuta: olio, pigmentu lehortzaile eta berniz nahastura baten gainean (1) urre orria zuen jarrita, oraingo honetan 23 kilatekoa. Haren gainean berniz erretxinadun geruza antzematen da (3).

En la **muestra 2** observamos la película de oro (2) que aparece en algunas zonas de la reja. Estaba aplicada por la técnica del dorado al aceite: sobre una mezcla de aceite, pigmentos secativos y barniz (1) se aplicaba la hoja de oro, en este caso de 23 quilates. Sobre ella se aprecia una capa de barniz resinoso (3).

